Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2015eko irailaren 11, ostirala — 174 — Viernes, a 11 de septiembre de 2015

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ERRENTERIAKO UDALA

### Hirigintza

*Iragarkia*

Udalbatzak, 2015eko uztailaren 20an egindako bilkuran behin betiko onarpena eman zion Errenteriako udalerrian hileta zibilak eta bestelako ekitaldi, agur edo omenaldiak egiteko ordenantza-ri, aurkeztutako alegazioaren onartutako zatiak suposatzen duten aldaketak jasotzen dituen testuaren arabera.

Aipatutako erabakiari jarraiki, eta Toki Araubide Oinarri Lege Arautzailearen 65.2 artikuluan aurrikusitako epea igaro ondoren, ordenantzaren testu osoa argitaratuko da jendeak jakin dezan eta bere ondorioak izan ditzan.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtso jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtso.

*Non:* Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzietarako Salan.

*Epea:* Bi hilabetekoa, argitaratu eta biharamunetik hasita.

ERANSKINA

*Errenteriako udalerrian hileta zibilak eta bestelako agur, omenaldi edo ongietorriak egiteko Ordenantza.*

ATARIKOA

Estatu ez-konfesional batean, erakundeek pertsonen eta elkarteen askatasun ideologiko eta erlijiosoa eta gurtzarako askatasuna bermatu behar dutela gauza jakina da gizartean, eta horretarako muga bakarra legeak ezartzen duen ordena publikoa errespetatzeko beharra da. Bestalde, gure gizartean aniztasun ideologikoa, erlijiosoa eta kulturala da nagusi, gizarte plurala baita, eta ohituren eta ekintza sozialen adierazpenak etengabe ari dira aldatzen.

Gure gizartean eta gure herrian bertan hainbat sineskera eta pentsamolde daude, eta zenbaitek leku edo tenplu jakin batzuk erabiltzen dituzte hileta zibilak eta bestelako ekitaldi, agur edo omenaldiak egiteko.

Hileta zibilak edo beste edozein arrazoirengatiko omenaldiak edo ongietorriak egiteko behar soziala sortu da horrelako ekitaldia izatea erabaki duten herritarrei zeremonia duina eta pertsonala eskaintzeko beharretik, herritar horiek bizitza ulertzeko duten modua errespeta dadin.

Gure gizartean geroz eta omenaldi, eskertza, zeremonia zibil eta agur sozial gehiago egiten dira eta Udalaren betebeharra da geroz eta handiagoa den behar sozial horri erantzutea.

## AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA

### Urbanismo

*Anuncio*

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada con fecha 20 de julio de 2015, acordó aprobar definitivamente la Ordenanza para la celebración de actos, despedidas u homenajes civiles por fallecimiento o cualquier otra causa en el municipio de Errenteria, según texto que contiene las modificaciones que conllevan la estimación parcial de la alegación presentada.

En virtud de dicho acuerdo, y habiendo transcurrido el plazo establecido en el artículo 65.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica el presente anuncio junto con el el texto íntegro de la referida Ordenanza para su conocimiento y efectos consiguientes.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo y pone fin a la vía administrativa, podrá interponer recurso contencioso administrativo o cualquier otro recurso que estime procedente.

*Lugar:* Ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

*Plazo:* Dos meses a contar desde el día siguiente de su publicación.

ANEXO

*Ordenanza para la celebración de bienvenidas, despedidas, u homenajes civiles por fallecimiento o cualquier otra causa en el municipio de Errenteria.*

PREÁMBULO

Como es conocido por la sociedad en su conjunto, en un Estado aconfesional, las instituciones deben garantizar la libertad ideológica, religiosa y de culto de las personas y comunidades sin más limitación que la necesaria para mantener el orden público de acuerdo con la Ley. Asimismo, es conocida la diversidad ideológica, religiosa y cultural de nuestra sociedad, plural y en transformación constante en cuanto a la manifestación de sus costumbres y actos sociales.

En nuestra sociedad y en nuestro propio pueblo existen diversas creencias y maneras de pensar, y algunas de ellas utilizan lugares y templos concretos para celebrar actos, despedidas u homenajes civiles a personas por fallecimiento o cualquier otra causa.

La realización de funerales u homenajes civiles por bienvenida, fallecimiento, o cualquier otra causa, nace de la necesidad social de ofrecer una ceremonia digna y personal a aquellas ciudadanas y ciudadanos que han decidido que se realice de esa manera, de conformidad a cómo la persona a homenajear concibe la vida o a cómo la difunta concebía la vida.

En nuestra sociedad cada vez más se realizan actos conmemoratorios o de agradecimiento, ceremonias civiles y despedidas sociales a personas siendo obligación municipal dar respuesta a ésta necesidad social cada día más demandada.

EK\CV GAO-I-2015-07902

Horrela, bada, ordenantzaren xedea da familiak eta lagunek ekitaldi zibilak egiteko behar dituzten lokalak erabiltzeko arauak ezartzea.

Ordenantza honen helburua da, beraz, senitartekoek eta adiskideek beren hildakoei edo auzokideei omenaldia, agurra edo ongietorria egiteko baimena emateko arauak jartzea, hala, pertsona horien ekarpenak edo balio etikoak edota gizatiarrak onartzeko.

I. KAPITULUA

XEDEA

*1. artikulua.*

Ordenantza honen xedea da Errenteriako udalerrian hildakoei hileta zibila edo beste edozein arrazoirengatiko omenaldia egiteko Udalaren lokalak erabiltzeko eta horretarako baimena jasotzeko arauak xedatzea.

II. KAPITULUA

BAIMENA

*2. artikulua.*

Alkateak edo hori ordezkatuko duen zinegotziak hileta zibiletarako edo omenaldietarako gordetako espazioak erabiltzea baimendu ahal izango du, betiere, senitartekoak edo dagokionak Errenteriako Adinduen Egoitzan bertan (Gabierrota pasealekua z.g.) edo 943.526.000 telefonoan eskaera egin ondoren. Alkateak, ebazpen batean arrazoituta, zeremonia zibilaren lekua aldatu ahal izango du eta, hala eginez gero, zehaztu beharko du nora igorri behar den dokumentazioa; hala erabakitzen bada, Errenteriako Udaleko Erregistrora bidali ahalko da.

Hala eta guztiz ere, ordenantza honen 4. artikuluaren 2. puntuan aurreikusitakoaren arabera, eskaera ahoz edo aurrez aurre egin ahal izango da.

III. KAPITULUA

PROZEDURA HASTEA

*3. artikulua.*

Hileta zibilak edo omenaldiak egiteko Udalaren lokalak erabiltzeko eskaerak aurreko paragrafoan adierazitako lekuan aurkeztuko dira eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak zehaztutako edozein bide erabili ahal izango da horretarako.

*4. artikulua.*

1) Hileta zibilak edo omenaldiak egiteko eskaeren izapideak egoera horrek beharrezkoa duen berehalakotasun-printzipioaren arabera arautuko dira, eta horretarako eskumena duen pertsonari igorriko zaizkio, ebazpena eman dezan.

2) Ildo horretan, Errenteriako Adinduen Egoitzako Añarbearetoa hileta zibiletarako edo omenaldietarako espazio gisa erabiltzen den bitartean, eskaera aurrez aurre edo telefonoz egin ahal izango da egoitza horretan, ordenantza honetako 5. artikuluan adierazitako datuak emanda.

Aretoa erabili badaiteke, ordu eta egun bererako ez delako beste ekitaldirik aurreikusi, nahikoa izango da ahoz jakinaraztea eta erregistro-liburuan jasotzea.

Así pues, el objetivo de la Ordenanza es establecer las normas para el uso de locales municipales que se necesiten para que las familias y las amistades realicen otro tipo de actos civiles a las personas.

La presente ordenanza pretende, por tanto, regular la autorización y celebración que familiares y amistades, quieran realizar a sus personas difuntas o a sus convecinas como bienvenida, homenaje o despedida a su persona, reconocimiento a sus aportaciones comunitarias o valores éticos y/o humanos.

CAPÍTULO I

OBJETO

*Artículo 1.*

La presente ordenanza tiene por objeto regular la autorización y utilización de locales o espacios municipales para la realización de funerales u homenajes civiles por fallecimiento o cualquier otra causa en el término municipal de Errenteria.

CAPÍTULO II

AUTORIZACIÓN

*Artículo 2.*

Podrá autorizar el uso de cualquiera de los espacios reservados para los funerales u homenajes civiles la Alcaldía o Concejalía en quien delegue, previa recepción de la solicitud que debe presentar la persona o familiar en la Residencia Municipal de Ancianos de Errenteria sita en Paseo de Gabierrota, s/n o llamando al teléfono 943.526.000. A través de resolución de alcaldía se podrá, de forma justificada, cambiar la ubicación prevista para la celebración de las ceremonias civiles, en cuyo caso se deberá especificar donde se debe remitir la documentación que podrá ser en el Registro Municipal del Ayuntamiento de Errenteria si así se estima oportuno.

Todo ello sin perjuicio de la solicitud verbal o personal prevista en el punto 2 del artículo 4 de esta ordenanza.

CAPÍTULO III

INICIACIÓN DEL PROCEDIMIENTO

*Artículo 3.*

Las solicitudes para el uso de dependencias municipales para la realización de funerales u homenajes civiles, serán dirigidas al lugar determinado en el párrafo anterior de Errenteria en cualquiera de las formas permitidas por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 4.*

1) La tramitación de las solicitudes para la realización de funerales u homenajes civiles se regirán por el principio de inmediatez que requieren las circunstancias, siendo remitidas a la persona competente para su resolución.

2) En este sentido, mientras se siga manteniendo la Sala Añarbe de la Residencia Municipal de Ancianos de Errenteria como espacio reservado para estos funerales u homenajes civiles, la solicitud podrá hacerse personalmente o telefónicamente en la referida Residencia aportando los datos previstos en el artículo 5 de esta ordenanza.

Si la Sala está disponible, por no estar previsto otro acto en esa hora y fecha, bastará con la conformidad verbal quedando constancia con una anotación en el libro registro llevado al efecto.

EK\CV GAO-I-2015-07902

*5. artikulua.*

Egingo diren eskaeretan honako datu hauek adierazi beharko dira:

a) Ekitaldia egiteko baimena eskatzen duen pertsonaren izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta identifikazioa.

b) Oroitzapenezko ekitaldia, eskertza, hileta zibila, omenaldia edo agur zibila eskaintzen zaion pertsonaren izen-abizenak.

c) Eskaeran hileta zibila edo omenaldia zein egunetan eta zein ordutan egin nahi diren adierazi behar da.

d) Eskaera egin den lekua eta data.

g) Eskatzailearen sinadura edo haren borondatearen egiazkotasunaren egiaztagiria, edozein euskarritan.

f) Aretoan ez dagoen materialen bat erabiliko den.

g) Adierazpena egingo da ziurtatzeko ekitaldiak ez dituela urratzen pertsonen oinarrizko eskubideak, emakume eta gizonen arteko berdintasuna edo legezkotasuna eta ez dela gainerako herritarren aurkakoa.

Administrazioak, ahal duen neurrian, eskaeran zehaztutako eguna eta ordua errespetatuko ditu, eta eskaerak egin diren ordena hartuko da kontuan horretarako. Ordena hori aldatu ahal izango da aparteko kasuetan eta horretarako arrazoi nahikoa dagoenean.

*6. artikulua.*

Eskaerak aurreko artikuluak zehaztutako baldintzak betetzen ez baditu, interesdunari lehenbailehen eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko, ekitaldiaren aurretik edo ondoren.

IV. KAPITULUA

PROZEDURAREN INSTRUKZIOA EGITEA

*7. artikulua.*

Hileta zibila edo omenaldia egiteko eguna eta ordua alkateak edo horren ordezko zinegotziak zehaztuko ditu.

Ahal den heinean, eskatzaile bakoitzak zehaztutako lehentasunen ordena errespetatuko da. Udal-lokalak erabiltzearen ondorioz, gerta daiteke eskatutako ordutegia ez ematea. Dena den, horretarako nahikoa arrazoi izan beharko da, eta eskatutako ordutegia aldatu zaien eskatzaileei kontsulta egin beharko zaie.

Irizpide berarekin jardungo da ordenantza honetako 4. artikuluaren 2. puntuan aurreikusitako ahozko jakinarazpenen kasuan.

*8. artikulua.*

Eskaera egin ondoren, alkateak edo horren ordezko zinegotziak hileta zibila edo omenaldia Udalaren zein lokaletan egingo den erabakiko du; oro har, hileta zibila edo omenaldia Adinduen Egoitzako Añarbe-aretoan egingo da, nahiz eta alkateak eskumena duen beste lokal esleitzeko. Hileta edo omenaldi bakoitzean zein lokal erabili behar den zehazteko, kontuan izango da lokalean burutzen diren ohiko jardueretan eraginik ez izatea.

*9. artikulua.*

Hileta zibilak edo omenaldiak astelehenetik igandera ospatuko dira, eta beharrezko udal baliabideak zuzenduko dira zeregin horretarako.

*Artículo 5.*

Las solicitudes que se formulen deberán contener:

a) Nombre, apellidos, domicilio, teléfono e identificación de la persona que solicita el permiso para el uso del local para la celebración del acto.

b) Nombre y apellidos de la persona a la que se dedica el acto conmemorativo, el acto de agradecimiento, la ceremonia civil por fallecimiento, el homenaje, o la despedida civil.

c) Indicación del día y la hora de preferencia para la celebración del funeral u homenaje civil.

d) Lugar y fecha de la solicitud.

e) Firma del o la solicitante o acreditación de la autenticidad de su voluntad por cualquier medio.

f) En su caso, material que se vaya a utilizar además del ya existente en la Sala.

g) Declaración de que el acto no va en contra de los derechos fundamentales de las personas, ni en contra de la igualdad de mujeres y hombres, ni en contra del resto de la ciudadanía, ni infringe la legalidad.

La Administración atenderá en la medida de lo posible la preferencia de la solicitud en cuanto a fecha y hora, ateniéndose al orden de presentación de las solicitudes. Dicho orden podrá ser alterado en casos extraordinarios y siempre que se motive tal alteración.

*Artículo 6.*

Si la solicitud no reúne los requisitos que señala el artículo anterior se requerirá al interesado o interesada con la mayor urgencia posible para que con antelación al acto o posteriormente subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos.

CAPÍTULO IV

INSTRUCCIÓN DEL PROCEDIMIENTO

*Artículo 7.*

La fecha y hora de celebración del funeral u homenaje civil será fijado por la Alcaldía o Concejalía en quien delegue.

La fijación de fecha y hora se realizará atendiendo asimismo, en la medida de lo posible, al orden de preferencias indicado por cada solicitante. Podrá no atenderse al horario indicado en las solicitudes siempre que se den circunstancias derivadas del uso de las dependencias municipales. En todo caso, la resolución deberá estar suficientemente motivada y deberá consultarse a las personas solicitantes sobre el cambio decidido introducido respecto a su petición.

Con los mismos criterios se actuará en los casos de conformidad verbal previstos en el punto 2 del artículo 4 de esta ordenanza.

*Artículo 8.*

A la vista de la solicitud la Alcaldía o Concejalía en quien delegue, determinará el local del Ayuntamiento en el que haya de celebrarse el funeral u homenaje civil, que con carácter general se celebrarán en la sala Añarbe de la Residencia Municipal de Ancianos, sin perjuicio de la competencia que se atribuye a la Alcaldía para modificar dicho local. Se tendrá en cuenta para determinar el local a utilizar en cada funeral u homenaje, que por el día y hora elegidos no se interfiera en las actividades que habitualmente se desarrollan en el local.

*Artículo 9.*

Los funerales u homenajes civiles se celebrarán de lunes a domingo, habilitando al efecto los recursos necesarios.

EK\CV GAO-I-2015-07902

*10. artikulua.*

Hileta zibila edo omenaldia ospatzeko ordutegia ondokoa izango da: lanegunetan, larunbatetan izan ezik, 17:00etatik 21:00etara; larunbat eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Hala eta guztiz ere, alkateak eskumena izango du ordutegi hori aldatzeko. Zeremoniak, gehienez, ordu bat iraungo du.

V. KAPITULUA

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

*11. artikulua.*

Lokalak egoki zainduko direla bermatzeko, zeremonian parte hartuko dutenek ez dute berorietan kalterik edo galerarik eragin dezakeen inolako ekintzarik egingo. Kalterik edo galerarik eragiten bada, baimena jaso duen pertsonak hartuko ditu bere gain.

Halaber, ekitaldira bertaratzen direnek ez diete eguneroko jardunean aritzeko inolako eragozpenik eragingo aldameneko geletakoei.

*12. artikulua.*

Esleitutako lokala modu bereziren batean egokitu nahi badute, aurrez eta nahikoa denboraz Udaleko arduradunari horren berri eman beharko diote, hartu beharreko erabakiak har ditzan; hala ere, lekuaren harmonia eta ezaugarriak errespetatu beharko dituzte beti, eta sor daitezkeen gastuak beren gain hartu beharko dituzte. Ekitaldia egiteko zerbitzu osagarriak interesdunaren kontura eta kargura izango dira, baina, betiere, Errenteriako Udalak ikuskatu ahal izango ditu.

*13. artikulua.*

Ordenantza fiskalean xedatutako eskubide eta tasak ordaindu beharko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Errenteriako Udaleko alkateari ematen zaio ordenantza hau aplikatzeko egin beharreko jarduketa guztiak egiteko ahalmena.

Ordenantza hau behin betiko testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta Udalbatzak berau aldatzeko edo indargabetzeko erabakia hartu arte izango da indarrean.

AZKEN XEDAPENA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 56.1, 65.2 eta 70.2 artikuluetan xedatukoaren arabera, Ordenantza honela argitaratu eta sartuko da indarrean:

a) Ordenantza honen behin betiko onespenaren berri emango zaie Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioei.

b) Jakinarazpenak hartzen direnetik kontatzen hasita hamabost eguneko epea iragan ondoren, akordioa eta Ordenantzaren testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira.

c) Ordenantza indarrean sartuko da argitaratu ondorengo egunean. Egun horretatik aurrera, indargabetu egingo dira ordenantza honen aurka dauden udal-xedapen guztiak.

Errenteria, 2015eko irailaren 7a.—Jaione Karrikiri Garaño, alkateordea. (7902)

*Artículo 10.*

El horario para la celebración de los funerales y homenajes civiles será de 17 a 21 horas en días laborables, excluidos los sábados, y de12 a 14 horas y de 17 a 21 horas, los sábados y festivos, sin perjuicio de la competencia que se atribuye a la Alcaldía para modificar el horario. La duración de la ceremonia será de un máximo de una hora.

CAPÍTULO V

DERECHOS Y OBLIGACIONES

*Artículo 11.*

A fin de garantizar la buena conservación, quienes asistan a la ceremonia se abstendrán de realizar cualquier acto que pueda suponer deterioro o menoscabo de las dependencias, asumiendo la persona autorizada los gastos que, en su caso, se produjeran por daños o desperfectos que pudieran ocasionarse.

A fin de garantizar el normal desarrollo de la actividad diaria de las dependencias colindantes al espacio cedido, los asistentes a la ceremonia se abstendrán de realizar actividad alguna que resulte molesta.

*Artículo 12.*

Si se deseara ornamentar el local asignado o acondicionarlo de forma especial, deberán hacerlo saber al responsable municipal con la antelación suficiente para que resuelva lo que proceda, respetando siempre la armonía y características del lugar y siendo a su cargo los gastos que con este motivo se produzcan. Los servicios complementarios para la celebración del acto, los aportará la persona interesada e irán a su cargo sin perjuicio de la supervisión de los mismos por parte del Ayuntamiento de Errenteria.

*Artículo 13.*

El abono de derechos y tasas quedará supeditado a lo que, en su caso, se regule en la correspondiente ordenanza fiscal.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Se autoriza a la Alcaldía del Ayuntamiento de Errenteria para la realización de las actuaciones necesarias en orden a la aplicación de la presente Ordenanza.

La presente Ordenanza entrará en vigor el día siguiente al de la publicación del texto definitivo en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación expresa que deberá acordarse por el Pleno del Ayuntamiento.

DISPOSICIÓN FINAL

Conforme a lo dispuesto en los artículos 56.1, 65.2 y 70.2 de la ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, la publicación y entrada en vigor de la Ordenanza se producirá de la forma siguiente:

a) La aprobación definitiva de la presente Ordenanza, se comunicará a la Administración del Estado y a la Administración de la comunidad vasca.

b) Transcurrido el plazo de quince días desde la recepción de las comunicaciones, el acuerdo y el texto de la Ordenanza se publicará en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

c) La Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación. A partir de la citada fecha, quedan derogadas cuantas otras disposiciones municipales se opongan al contenido de esta Ordenanza.

Errenteria, a 7 de septiembre de 2015.—La teniente de alcalde, Jaione Karrikiri Garaño. (7902)

EK\CV GAO-I-2015-07902